

## GIL 104 Elantxobeko luizia



Hegal-dinamikaren eta kostaldeko dinamikaren konbinazioak hegalean eragindako efektuak 2010eko azaroaren ekaitzaren ondoren.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 24' 9" N

Long.: 2° 38' 17" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 529.314,01 m

Y: 4.805.578,14 m



### Nola iritsi

Elantxobe herria kokatzen den hegalean daude luiziak, eta BI-3237 errepidean aurrera jarraitzen dute. Elantxobe eta Ibarrangelu lotzen dituen bide horretatik iristen da Elantxobera. Ibarrangelutik, Ibinaga auzoa pasatutakoan, eskuinerantz atera eta kostaldeari jarraituz Elantxoberantz doan errepidea hartu behar da.



Elantxobeko hegalei eusteko hormak.

## GILaren deskribapen laburra

Elantxobe herriak kokaleku duen hegalean, zeina hego-ekialderantz hedatzen baita, irristatze-prozesu batzuk ikus daitezke. Era horretako prozesuek osagai estruktural argi bat dute, kostaldearekiko paraleloan dagoen antiklinal baten NE-ko alpearen gainean garatzen baitira eta alpe horrek itsasoranzko okerdura handia baitu. Zenbait norabide-tako faila-sorta batek ingurunetik bereizten du multzoa. Litologiaren ikuspegitik, flysch-itxurako konplexu oso lodi baten gainean garatzen da hegala. Konplexuan, txandakatu egiten dira hareharrizko bankuak, argilolita lohitsuak eta kuartzoarenitak Erdi Albiarretik Cenomaniarrera bitarteko banku finetan. Antolaera tektonikoa eta konposizio litologikoa dira irristatze-prozesuen oinarria, zeren eta aldaparekin bat datorren okerdura handiak lagundu egiten baitie geruzei askatzen etengune estratigrafikoetatik abiatuta.

Berezko geologia horri, klima-baldintzak batzen zaizkio, zeinak lagungarri gertatzen baitira hegaleko-prozesuak abia daitezen: prezipitazio handiak gertatzen dira, maiz denbora laburrean metatuak, jariatze-koefiziente handiko lurzoru aseetan, eta, horren ondorioz, prezipitazioak oldarkorrak dira; beraz, esan daiteke arrisku naturala handia dela. Faktore horietaz gainera, badira beste batzuk, eragindakoak, luizien arriskua handitzen duten lurraldearen erabilerei lotuak: hirigintza, basoen erabilera eta mendi-bide eta errepideak zabaltzea, malda eteten dutenez hegaleko-prozesuak sustatzen baitituzte; hain zuzen, behatzeko punturik onenetako bat herrira iristeko errepidea da, non maiz gertatzen baitira luiziak euri-jasa handiko euriteen ondoren.

Luizi horiek aise ikusten dira hegaleko morfologian: deformazio ugari eta urratze-orbainak agertzen dira, bai eta hegaleko irristatze geldoaren erakusgarriak ere zuhaitzenborren deformazioan.



Luizien xehetasuna.

Bestalde, labar horiek eta Ogoño lurmuturra bera ere interes handiko elementu geomorfologikoak dira, kostaldeko dinamikarekin erlazionatutako prozesu asko ikus baitaitezke haietan.

## Behatzeko punturik onena

*In situ*. Herrira joateko errepidea, begiratokia edo portura jaisten den errepidea.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 14, GIL 92, GIL 100.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 14, GIL 23, GIL 99, GIL 102, GIL 105.



Kretazeoko kareharri eta lutitek antiklinal bat eratzen dute kostarekiko paraleloan, eta haien gainean garatu da hegala. Hegala bat dator NE-ko alpearekin, zeinak itsasoranzko okerdura handia baitu.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				●*
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	* Arrisku geologikoak.				

## Bibliografia espezifikoa

- *Catálogo Nacional de Riesgos Geológicos*. IGME.
- Mendia, M., Aranburu, A., Carracedo, M., González, M.J., Monge-Ganuzas, M. eta Pascual A. (2010). *Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibai Biosfera Erreserba, Eusko Jaurlaritza, 182 or. <http://www.euskadi.net/geodibertsitatea>
- Mendia, M., Monge-Ganuzas, M., Diaz Pinto, G. eta González Lastra, J. (2011). *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Geologia Interesguneen Gida-liburua / Guía de Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 344 or.